



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

**EUSKARA ELKARGUNEA – BILKURA MONOGRAFIKOA (2018/05/31)  
“2019KO UDAL AURREKONTURAKO LEHENTASUNEN INGURUKO  
EZTABAIDA”**

Zinegotziak egin zuen agerraldiaren zati bat:

“Udalaren hizkuntza-politika ezartzen dute euskararen erabilera-planek, eta 86/1997 Dekretuan xedatutakoa betetzea dute helburu. Onetsi den azkena 2013-2017 aldiari dagokio; beraz, plangintzaldiaren lehen urtean administrazio guztiek —baita Udalak ere— euskararen erabilera normalizatzeko planak onartu behar dituzte.

Horren ondorioz, 2018. urtean V. Plangintzaldiko planaren ebaluazioaren datuak abiapuntutzat hartuta, VI. Plangintzaldiko plan estrategikoa diseinatuko da Erreferentzia Marko Estandarraren arabera (Bikain – Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren arabera, alegia).

Erabilera plan berrian helburu nagusiak markatuko dira herritarrekiko harremanetan (Araubi-deak aitorturiko hizkuntza-eskubideak erosotasunez baliatzeko aukera eman behar zaie herritarrei); udalaren barruko harremanetan (lehenetsitako atalen artean, bereziki); eta beste administrazioekiko harremanetan (Hakoba bideratzen ari diren administrazioen arteko lantaldearen bidez).

Eta horiez gain, helburu horiek lortzeko ildo nagusiak:

- a) Derrigortasun data berriak ezarriko dira hainbat lanpostutan, derrigortasun indizeari egokitzeko. Horri estuki lotua, langileen hizkuntza-gaitasuna areagotzen jarraitzeko asmoa dago, besteak beste, langileen euskara-ikasketak bultzatuz.
- b) Atal elebidunak eta mikroplana dutenak sortu eta zehaztuko dira jendaurreko eta gizarte-izaerako eta gazteriarekin harreman ugaria duten zerbitzuetan.
- c) Sail guztietan eta hainbat arlotan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarriko dira, zerbitzuek beren ohiko lan-prozeduretan txerta ditzaten, hala nola kontratazioetako, diru-laguntzetako edo irudi korporatiboko hizkuntza-irizpideak.
- d) Azkenik, helburuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazleen datuen neurketa egingo da Hizketa aplikazioaren bidez (Hizkuntza Kudeaketarako Aplikazioa).”